



Ingurumena zaintzeko ekimenak

Aste Berdea ospatzeko hainbat ekimen burutu dira herrian



3 X. URTEURRENA

Entsegu irekia egin du Kukukak Dorleta Urretabizkaiarekin

Kukuka bere X. urteurrenean burutzen ari den egitarau zabalaren barruan, herriko aktore amateurrek entsegu irekia egin zuten Dorleta Urretabizkaia aktore eta zuzendari lasarte-oriatarrekin asteartean. Esperientziak trukatu eta praktikan jartzeko aukera izan zuten.

4-5 BURUNTZALDEA

Udalak gida baimena euskaraz ateratzeko aukera bultzatzen du

Semaforo berdea!! Gidabaimena euskaraz ekimena martxan jarri dute aurten ere Buruntzaldeko Udalek. Aurreko urteen antzera, gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen artean, auto-eskola bakoitzeko 400 eurotako saria izango dute. Ikasleen artean zozketa egin eta gazte batek doan izango du azterketako alde teorikoa. Urtez urte gero eta gehiago dira ekimenean parte hartzen dutenen gazteek eta eskualdeko Udalek hori bultzatzen jarraitzea erabaki dute.

Ingurugiroa zaintzeko norberak egunero egiten dituen ekimenak jaso nahi izan dira aurten Aste Berdean. Honekin batera eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa burutu zen asteartean. Honetan gidatzean ahalik eta gutxien kontsumitzen ikasi zuten hainbat herritarrek ikastaro teoriko eta praktikoa batean. Gaur Okendon ekimen berdeen bildumarekin erakusketak egingo da 17:00etatik aurrera eta herritarrek ekimen hoberenak bozkatu ahal izango dituzte.

Ingurugiroa zaintzeko herritarrok egiten duguna ezagutzeko ekimen berdeak jasotzeko deialdia egin zen, Aste Berdearen baitan. Asteazken goizean ekimen hauen berri emateko informazio postu bat jarri zen Brigadatarren plazan eta bertan hauen gaineko informazioa emateaz gain, berriak proposatzeko aukera izan zuten lasarteoriatarrek.

Jasotakoaren artean, hondakin gutxiago sortzeko tupperarekin arrandegi eta harategira eramaten dituzten herritarrak, egunero lanera bizikletan joaten direnak, hondakinekin bitxiak egiten dituenak, soilik bertakoak eta garaiakoak diren produktuak saltzen dituen dendaren kasua... beste askoren artean.

Jendea informazio eske gerturatu zen eta batez ere



Brigadatarren plaza inguruan ekimen berdeen inguruko informazio postua jarri zen asteazken goizean.

konpostagailuen inguruan galdetzen zuten askok.

Izan ere, Mankomunitateak hauek doan errazten dituzten baldintza batzuk betetzen dituzten herritarren artean. Hau da, Mankomunitatea osatzen duten herritakoa izan behar da eskaera egiten duen herritarra eta lur eremu bat izan behar du hau ipintzeko. Bigarren hau ere, lurra alegia, Mankomunitateko udalerrit batean egon behar du.

Ekimen hobereana hautatu

Gaur, Okendo plazan, 17:00etatik aurrera ekimen berde hauen inguruko informazio gehiago eskura izango dute herritarrek antolatuko den erakusketarekin. Honetan erakusten direnen artean ingurugiroa zaintzeko hobe-



Eraginkortasunez gidatzen ikasteko saio teorikoa izan zuten.

rena den ekintza hautatu ahal izango da.

Eraginkortasunez gidatu

Asteartean berriz, eraginkortasunez gidatzeko ikastaroak burutu ziren. Martxa luzeak

erabili eta gutxi balaztatzea dira kontsumo murrizteko gidatzerakoan hartu beharreko ohiturak. Lasarte-Oriatik Usurbilerako joan etorrian, ia litro bat aurrez daiteke aipatutako bi gomendioak jarraituta.

2012ko uda-ikastaroa UDAL EUSKALTEGIAN

Azterketak prestatzeko ikastaroa.

- Astelehenetik ostiralera.
- 3 orduko ikastaroa (9:30 - 12:30)
- Prezioa: 90 €
- Diru-laguntzak badaude.
- HABEren 1., 2. eta 3. maila (EGA).

Titulu homologatuak: Osakidetzarako, Hezkuntzarako, Ertzaintzarako eta Administrazioarako balio dutenak. Ikastaroaren iraupena: Uztailaren 2tik 27ra. Matrikulaldia: Ekainaren 1etik 15era

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Bekokale bidea 1
Tel.: 943 36 16 21
20160 Lasarte-Oria
www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml

Bideo Lagunak



EUROCOPA IKUSTEKO
eskaintza berezia
telebistetan

ASPE garbigailua 6 kg/ 1000 bm
259 €

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Neure kabuz



Jone M. Hernandez

Kate Berdea

Kate berdea osatu zuten Kukukakoek maiatzaren 26an. Goizean zehar herriko kaleetan zuzeneko ikasturtean zehar landutakoa eta ikasitakoa kanporatzeko asmoz. Gozamen hutsa izan da hainbeste sormen lana eta ahalegina oholta gainean ikustea; hainbeste alaitasun eta naturaltasun. Dibertitzeaz gain (eta hori jada asko da), antzerkigintza edota dantzagintza dituzten bestelako onurak behin eta berriz gogorazi dizkigute Kukukakoek: taldeka lan egiten ikastea, sormena gartztea, lotsa gainditzen joatea, norberaren gorputzak dituen aukeraz ohartzea, lagun berriak egitea, hizkuntza aberastea, ondo pasatzea, etabar luze bat.

Aurtengo partaidetza ikusita, argi dago era askotako pertsonak erakartzen dituela Kukukaren eskaintzak. Desfile egunean, Okendo plazan, herritarrez osatutako kate berdeari begira lagun batek zera esan zidan harriduraz: "espero ez nuen jendea topatu dut desfilean. Sorpresa atsegina izan da". Halaxe da, aniztasuna da nagusi herriko antzerki eta dantza taldeetan, batez ere adinez, formazioz, neurri batean ere jatorriz. Baina beste zerbaitek ere deitu dit arreta: espero daitekeenaren hutsuneak. Herrigintzan oinarritutako proiektua bada, non daude mutikoak eta gizonak? Kulturaren onurak ez al dira denontzako onurak? Esango nuke badugula zer hausnartu, denok, herritar orok..kate berdea ahalik eta luzeena izan dadin.

Zorion agurrak



Begoña eta Garazi

Zorionak bikote eta ondo pasa zuen egunean. Muxu handi bat Elene, Aizpea eta aitaren partetik.



Gabi

Zorionak gure txapel-dunari. Hamar muxu handi.



Ivan

Zorionak Ivan, guraso eta arreban partetik. Muxu handi bat.



Iker

Hitzek besarkada bat ezin dute ordezkatu, baina nahia hoberenak iritsiarazteko balio dute. Zorionak!



Naroa

Zorionak printzesa zure lehenengo urteurrenean gurasoen partetik. Muxu handi bat.



Jose Luis eta Mari Jose

Zorionak zuen zilarrezko ezteietan!! Egun zoriontsua opa dizue familia osoak.



Mª Pilar eta Jose

Elkarrekin 50. urtez zoriontsu izan zarete. Zorionak eta horrela jarraitu!!



Jon

Zorionak eta hamabi muxu handi familia guztiaren partetik.



Ivan

Zorionak eta ondo pasa zure zortzigarren urtebetetzean... familiakoen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza immobiliarioak

- Pisu alokatzen da. 4 gela, sukaldea, sala, bainugela eta komunarekin. Bankuaren abala behar da. Harremanetarako telefonoa, 943 372 066.
- 85m2ko etxea alokatzen da zentroan. 3 logela, 2 komuna, sukaldea eta egongela. Interesatuak deitu 647 024 074 zenbakira eta Anagatik galdetu.

Lan-eskariak

- Emakume euskaldun bat eskaintzen da umeak edo adinekoak zaindu, eta etxeko garbiketarako egiteko goizetan. 943 365 038.
- Obrako peoi, hoteletako garbiketa egiten,

- baserrian edo zama lanak egiteko gazte eskaintzen da. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzaal.
- Neska eskaintzen da arropa lizateko. Harremanetarako, 602 517 575.
- Klase partikularrak euskara, ingelesa, matematikak, lengoaia, etab. eskaintzen dira. Harremanetarako, 693 601 222.
- Magisteritza ikasten ari den neska euskaldun bat, haurrak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest dago. 649207669
- Emakume eskaintzen da adinduk zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako garbiketa lanak burutzeko. Esperientziaduna eta paperekin. 629 871 605 Mirna.

- Proficiency titulodun ingeniari itza ikasle batek ingeles eta matematika klase partikularrak emango lituzke udan. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko: 676 145 135.
- 29 urteko emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak egiteko. Paperak ditu. Harremanetarako, 669 931 026.

Salerosketak

- Egoera onean dagoen ordenagailu mahai bat saltzen da. Telefonoa: 654 167 077.

Bestelakoak

- Pisu alokatu nahiko nuke, Lasarte-Oria erdian. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzaal.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ekhi Iparragirre Tolosa, ekainaren 2an.
- Naroa Baltasar Garcia, maiatzaren 22an.



Heriotza

- Jose Luis Plaza Pin, ekainaren 2an, 65 urte zituela.
- Amalia Unanue Sancho, ekainaren 1an, 93 urte zituela.
- Amalia Alonso Laguzzi, maiatzaren 31an, 47 urte zituela.



Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 8 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 9 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 10 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 11 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astearta, 12 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 13 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 14 De Miquel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAKO Kultura eta Euskara Departamendua

ANTZERKIA



Saioaren lehen zatian solasalditoxoa egin zuten bertaratutakoek Dorleta Urretabizkaiarekin.

Aktorearen lana gertutik

Kukukak bere X. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzetako bat izan zen Dorleta Urretabizkaia aktorearekin topaketa

Kukukak asteartean Manuel Lekuonan entsegu irekia egin zuen Dorleta Urretabizkaia herriko aktorearekin. Honekin antzele izatearen inguruan mintzatu ziren bertaratutakoak, esperientzia pertsonalak komunean jarri eta saioaren bigarren zatian praktika bat burutu zuten.

Kukuka antzerki eta dantza eskola bere urteurrena ospatzen ari da. Honen baitan asteartean Dorleta Urretabizkaia aktorearekin entsegu irekia antolatu zuen Manuel Lekuona kultur-etxean. Hainbat herritar gerturatu zen herriko Dorleta Urretabizkaia aktorearekin egindako entsegura.

Lan ezberdinak

Antzerkian eta telebistan du eskarmentu gehien Dorleta Urretabizkaia. Aktore lanak burutzeaz gain, gidoilari, zuzendari, aktore zuzendari bezala ibilitakoa da.

Aktore lanetan bere lehen esperientzia Goenkalen izan zuela azaldu zien bertaratutakoek. Hasieran "jolas" bezala hartu zuen arren Goenkaletik

pasa ondoren, antzezipena bere ogibide bihurtzea erabaki zuen.

Horretarako Bartzelonara joan eta interpretazio ikasketak burutu zituen. Etxera buelta ez zen xamurra izan "ez ninduen inork kontratatzen eta karrera bat ikastea erabaki nuen, ikasten hasi eta lehen lanetarako deitzen hasi zitzaizkidan." Geroztik lan ezberdinak egin ditu.

Euskal antzerkia hizpide

Aktorearen lan egiteko moduen inguruan hausnarke-ta egin zuten, telebistak aktoreari behar bezala prestatzeko ematen dion denbora gutxia, antzerkiak ikusleekin duen harreman zuzenaren xarma, zinemagintzak denboran duen iraunkortasuna...

Euskarazko ekoizpenek ere lekua hartu zuten solasaldian eta egungo krisiak honetan izandako eragina aipatuz, antzerki, filma eta bestelako sorkuntza lanek bizi duten egoera zailaz aritu ziren.

Hala ere, aktore izatea polita dela zalantzarik ez dute eta sortzaile izateko aukera eskaintzen duen lana izanda, Kukukak herrian egiten duen lan ona azpimarratu zuen aktoreak. Azken batean antzerki eta dantzarako zale-tasuna txikitatik sortuz, bertan parte hartzen duten gaztetxoak ikuskizun hauen jarraitzaile bihurtuko dituelako eta batez ere, euskarazko sorkuntza lanen zirkuitu sare indartsu bat eratu ahal izateko.

Lagun artekoa

Lagun arteko mintzaldia izan zen Dorletarekin egindakoa, gertuko, oso hurbila eta antzeppen munduaren argazki orokorra. Ondoren ariketa praktiko batzuk egiteko parada ere izan zuten.

KUADRILLATEGI

Arcachonera irteera

Kuadrillategiko eta Gazte klubeko LH5 eta LH6 mailakoek Arcachonoko aquaparkera irteera egingo dute ekainaren 17an. Irteera goizeko 8:30ean egingo da hipodromoko zubitik eta itzulerara 20:30ean. Honetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da ekainaren 15a baino lehen.

Ttakuneko bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, berriz, 33 euro. Prezioaren barruan garraioa eta sarrera dago. Izena ematea Ttakun Kultur Elkarteak, 943 37 14 48 telefono zenbakian edo aisia@ttakun.com helbide elektronikoan egin daiteke.

HITZALDIA

Jakoba Errekondo Zabaletan

Gaur, ekainak 8, Jakoba Errekondok hitzaldia eskainiko du Zabaleta auzoan, 19:00etan, Antonio Blas plazako lokalean. Paisajista eta agronomo usulbildarra aski ezaguna da izan ere, urte asko darabata hainbat hedabidetan parte hartzen besteak beste, Euskadi Irratian, Argia astekarian, hitzaldiak, erakustaldiak...

Gai ugari menperatzen ditu, natura, loreak, landareak, baratza, paisaia, sagardoa eta gutxi bezela lortzen du bere ezagutzak komunikatzea. Antolatzaileei zaila egin zaie hitzaldia gai bakar batera mugatzea beraz zabalik utzi dute saioaren norabidea hizlari eta entzuleen artean bideratzeko.

SORGIN DANTZA

Izena ematea zabalik gazteentzat

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, aurten berriro ere, Sorgin Dantzaren barruan gazteen zortzikotea aterako da.

Honetan parte hartzeko 2000 eta 1996 urte bitartean jaiotako gazteek aurrez izena eman beharko dute Gazteen Informaziorako Bulegoan, Manuel Lekuonan. Azken eguna ekainaren 12a izango da.

Entseguak astearte eta ostegunetan egingo dira 20:00etatik 21:00etara, Landaberri BHiko patioan.

DANBORRADA

Entseguak hasi dira

Danborradarako entseguak hasi dira. Hauek astelehen eta asteazkenetan burutuko dira, ekainak 11, 13, 18, 20 eta 25 egunetan egingo dira hain zuten. Ohiko lekuan izango dira, Sasota ikastetxeko gimnasioan 20:00etan.

Danborradaren irteerari dagokionez gogoratu ekainaren 28an, osteguna 23:00etan izango dela Okendoko Plazan hasita. Aurreko urteetan bezela, aurretik afari bat antolatu da Goiegi jatetxean eta bertara joateko interesa dutenek edozein entsegutan eman ahal izango dute izena.

INGURUMENA

Agenda 21-en logoa Sasoetan egin

Hirugarren urtez herriko ikastetxeek Eskolako Agenda 21 programa garatu dute. Aurreko bitan ura izan dute lantzeko gaia eta aurtengoan berriz, biodibertsitatearen inguruan hausnartu dute herriko gaztetxoek. Honetaz gain, aurten bi eskolen artean logoa diseinatzeko proposamena luzatu zitzaizen ikasleei eta denen artean aukeratu izan zen 6. mailan Sasotako ikasle den Alvaro Dominguez Francoren lana.



Rozioko erromeria ospatuko du Semblantek- Herriko Semblante Andaluz elkarteak igandean ospatuko du Rozioko Ama Birginaren omenezko erromeria. 11:30ean meza egingo da Arantzazuko Ama elizan eta ondoren prozesioan aterako dira herriko kaleetan barrena. Okendo plazan patata tortilla txapelketa egingo da bigarren aldiz. Musikak hartuko du ondoren protagonismoa Aljarafe, Sentimiento Andaluz eta Concha Rociera taldeekin. 17:00etan, dantza ikuskizunak izango dira Aljarafe, Triana, Embrujo, Concha Rociera eta Semblanteko taldeen eskutik. Amaitzeko urdaiazpikoa zozketatuko da eta Rozioko Ama Birgina erromeriara etorrik diten beste herrietako elkarteetatik bisita egingo du.



SEMAFORO BERDEAK!! GIDABAIMENA EUSKARAZ

Atera gidabaimena euskaraz!

Semaforo berdeak! Gidabaimena euskaraz ekimena martxan dute Buruntzaldeko udalek. Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditzen dutenen artean, auto-eskola bakoitzeko sari bat banatuko da 2012 urte honetan ere.

U da inisitar da eta garai honetan asko dira gidabaimena ateratzekoan diren gazteak. Haur dela eta, Buruntzaldeko udalek, Semaforo berdeak! Gidabaimena euskaraz ekimenaren bidez, gidabaimena euskaraz ateratzen dutenei parte teorikoa doan lortzeko aukera eskaini nahi diete. Horrela, auto-eskola bakoitzeko sari bat zozkatzeko da.

Ekimena martxan jarri zenetik geroz eta gehiago dira Buruntzaldean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzen animatu direnak. 2011n esaterako, aurreko urteko ikasle kopurua bikoiztu egin zen, 60 ikaslek gainditu zuten euskaraz gidabaimena.

Harrearekin pozik

Naiara Sanchez Hermantxik euskaraz zinegotzaren bitzetan "ikasle kopurua ia bikoiztu egin da urteik, atera eta atera" erantzunak ematen ditu. "Gidabaimenaren erroka azterketa praktikoa eta euskaraz egin ahal izaneko azterkaleak gehiago euskaraz jakitea da. Baita geroz eta gazte gehiagok gidabaimena euskaraz ateratzea ere".

Honetaz gain, eskualdeko udal ordezkarientzat enkuntuzko jardunaldiak egin dira ezberdinen arteko elkarlana sustatzeko garrantzitsua da.



Auto-eskola eta udaltzako ordezkariek Urruburu aurkezten zuten ekimena. Auto-eskola bakoitzeko 400 euro arteko sari zozkatzeko da.

"Aurrera begira egitasmoarekin bat egitea Foni Aldundiak, Udalek auto-eskolek zerbitzua eskaraz eman ahal izateko behar dituzten bitartekoak jarri zuten lagundua nahi izan zuten auto-eskolei. Ordenagailurako multimedia aplikazioak eta liburua erosten lagundu zieten 2009-2010 ikasturtean.

Eta laguntza hori gabe auto-eskolek ezinezkozat jozen zuten sektorean eskaintza haur egin ahal izatea.

Aterketa teorikoa doan

Honetaz gain, beste urte batzuetan bezala, Semaforo Berdeak! Gidabaimena ekimenaren parte hartzen duen auto-eskola bakoitzeko sari bat banatu-

ko da euskaraz gidabaimena prestatu eta gainditzen duten ikasle guztien artean. Sariak prestatuzko teoriko bat doan izango da, 400 euro artekoa.

Aurreko urtean esaterako, hamaita sarritu izan ziren Buruntzaldean eta guztiak pozik azaldu ziren saria jasoko zutela jakitean.

Bakotzak 400 euro jasoko zuten eskualdeko alkate edo euskaraz zinegotzaren eskualdeko Sari Banaketa ekitaldian, Udal ordezkariek herrietako zein eskualdeko gazteak animatu nahi izan zituzten gidabaimena euskaraz ateratzeko.

Sarrituek ere hitz onak izan zituzten Buruntzaldeko udalek martxan jarritako ekimenarekin. Gehienek D ereduak ikasleak izanda gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera zuzelara eta euskaraz zein gaztelehar zailtasun berdina izango zutela pentsatuta, hau ere euskaraz prestatu eta ateratzea animatu ziren.

"Azkenik euskaraz ez da zailago, hitz teibonak arrotzak gertatzen zaizkizu baina gaztelehar baita euskaraz ere, garrantzia duenik, jendea animatzen dut gidabaimena euskaraz ateratzea" aspimairatu digu sarritutako gazteetako batek.

SEMAFORO BERDEAK!! GIDABAIMENA EUSKARAZ

ATERKETA TEORIKO BATEAN ZUZKETA AUTO-ESKOLA BAKOITZEKO

(Aterketa teorikoa bat, gehienez 400 euro)

BURUNTZALDEAN NON:

Aholak	Juan Buntata Etxe 9	945 55 44 06
BENDOTZEA	Agustín de Letiza 11	945 30 06 04
HENDI		
Atzargarrak		
OTAMENDI	Palastra 6	945 33 22 11
HERNANI		
LAGUNAK	Larrea 3	945 55 06 34
OTAMENDI	Urruburu 1	945 33 14 19
OTAMENDI	Irteza 1	945 55 35 45
Lasarte-Olea		
IZABEA	Golkak 11	945 37 70 05
LASARTE	Nagusak 5	945 37 05 92
MUSICA	Gando 1	945 36 22 75
Urneta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	607 61 64 16
Urneta		
SOLOZABAL	Irteza 2	945 37 69 36

AVAN TEKNOLOGIAK

MURCILOTA

IRUDIAKIN JOZSEAN

HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRENA!!!

gidabaimena EUSKARAZ

DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO!

www.buruntzaldea.org

Andoain, Atzargarrak, Hernani, Lasarte-Olea, Urneta eta Urruburu Udaltzako Euskarako Bazardeak



Eranitzunak eta gehiagorako, [buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org) orrialdean

Galdetegi honen erantzun zuzenak www.buruntzaldea.org orrialdean aurkitu ditzakezue.

Honeuz gain, Semaforo Berdeak! Gidabaimena euskaraz! Ekimenari buruzko informazio gehiago aurki dezakezue berria, hala nola, 2011 urteko irabazleak, Zalaratan dagoenak, gidabaimena euskaraz ateratzea, ikasgai bat euskaraz ikusi eta entzuteko aukera du.

Zure gaitasunak aztertu hurrengo galderak erantzunez




1. Ibilgailuen ibilbideak gurutzatuko balira, zein pasatiko litzateke lehenengoa?
A-ibilgailu urdina
B-ibilgailu gorria
C-ibilgailu zuria
2. Ondorengo seinaleen artean, zein da lehentasun-humenkeratzen duena?
A-Seinale bertikalak, bidezainak eta semaforoak.
B-Bidezainak, semaforoak eta seinale bertikalak.
C-Semaforoak, bidezainak eta seinale bertikalak

LABURRAK.-



Aizpea Arroyo eta Garazi Gomez Maite Rueda entrenatzaileekin. LOKE GIMNASTIKA

LOKEko gimnasten dominak Euskal Ligan

LOKEko gimnastek lan ederra egin zuten lehengo larunbatean Durangon ospatu zen Euskal Ligan. Lasarte-Oriako elkartek hiru gimnasta aurkeztu zituen lehiaketara eta bik domina eta trofeoa ekarri zuten herrira. Taldeko entrenatzaileak oso pozik agertu dira gazteek lortutako emaitzekin.

Aizpea Arroyok B mailako jubenilak bere mailako lehen postua eskuratu zuen; Garazi Gomez seniorrak berriz, bronzeko domina. Bestalde, Ariadne Aguado B mailako kadeteak bere lehen urtean bosgarren postuan amaitu zuen.

Igerilekua itxita larunbatean

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, ekainaren 9an, Lasarte-Oria Saria dela eta, igerilekua goizez itxia egongo dela. Erabiltzaileek Urnieta, Andoain edo Usurbilgo kirol-instalazioak erabil ditzakete.

Era berean, Buruntzaldea IKTKo arduradunek igerilekura gerutzera gonbidatzen dituzte herritarrek.

Eskola kiroleko izena emateko azken eguna

Eskola Kirolako arduradunek jakin arazten dute, hurrengo 2012-2013 ikasturterako Eskola Kiroleko jardueretan izena emateko orrialdea entregatzeko azken eguna dela.

PALA.-

Santa Ana Pala txapelketa hasi da

Hamalau bikote lehiatuko dira finalera iristeko

XXXI. Santa Ana pala txapelketako lehen partidak jokatu dira aste honetan. Aurten go edizioan hamalau bikotek parte hartuko du. Uztailaren 26ra arte, lehia handiak ikusi ahalko dira Loidi-Barrengo pilotalekuan.

Nerea EIZAGIRRE

Xabi Etxezarreta-Mikel Bardaji eta Jon Pagola-Jesus Ferreira bikoteen partidak hasiera eman zion asteartean Santa Ana pala txapelketari. Santa Ana egunean final handia ikusi ahalko da, baina bitartean hainbat norgehiagoka izango dira jokatu beharrekoak.

Aurtengo txapelketan hamalau bikote eman dute izena eta antolakuntzak jakin arazi duenez, ia zoko txapeldunek Eneko Urdanpilleta eta Unai



Astearte eta asteazken arratsaldetan Santa Ana Pala txapelketako partidak izango dira.

Lizasok ez dute parte hartuko. Beraz, txapelketa irekia dago.

"Zaletuek txapelketa antolatzea eskatu ziguten, eta, beste urte batez, badira 31, martxan jarri dugu, azaldu digute antolatzaileek.

Lehiaketa sistema

Honetaz gain, lehiaketari buruz ere mintzatu dira.

Bikote parte hartzaileak bi taldeetan banatu dituzte.

Talde bakoitzean ligaxka bat jokatu da itzuli bakarrera. Gauzak honela, aste honetako partidak kontuan izanik, zazpi astez izango dira partidak Loidi-Barrengo pilotalekuan. Hauek astearte eta asteazkenetan jokatu dira.

Fase hau amaitzean talde bakoitzeko bi onenek final erdiak jokatu dituzte eta finala Santa Ana egunean, uztailaren 26an jokatu da.

KIROL AGENDA.-

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 8

MOSSO OROIMENEZKOA

Michelingo kirol gunean

20:00etan, Buenetxea-Naiban

21:00etan, Balerdi-Illun

Larunbata 9

MOSSO OROIMENEZKOA

Michelingo kirol gunean

10:00etan, Ayete-(Buenetxea-Naiban)

11:00etan, El Punto-Oria kristaldegia

12:00etan, Txindoki-(Balerdi-Illun)

13:00etan, ISU Leioak-Viña del Mar

ESKU-PILOTA

Larunbata 9

SANTA PEDROKO TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua,

10:00etatik aurrera

Unai Sorrondegi eta Aimar Lizaso-Unai Bardaji

eta Eki de la Cruz *Aurrebenjaminak*

Beñat del Olmo eta Roke Etxezarreta-Mikel

Ibisate eta Aitor Igariz *Benjaminak A*

Gorka Marcos eta Julen Alberdi-Larrun Pikabea

eta Jon Susin *Alebinak A*

Ibai Zamora eta Jon Ibisate-Jon Martin eta

Xabier Uli *Alebinak A*

Ibon Obxandorena eta Alex Etxeberria-Andere

Vicente eta Joseba Blazquez *Alebinak B*Jokin Rodriguez-Eneko Ortiz *Infantilak*Peio eta Presa-Goio eta Arroio *Beteranoak A*

Hernani, 11:00etan

Hernani 2-Intza *Udaberriko txapelketa, eskuz binaka, 2. urteko alebinak*

Igandea 10

SANTA PEDROKO TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua,

10:00etatik aurrera

Mikel Marcos eta Ugaiz Igariz-Oier Sevillano

eta Endika Izagirre *Aurrebenjaminak*

Ametz Encinas eta Iker Sarasola-Eneko Lanchas

eta Anartz Garcia *Benjaminak A*

Ibai Zamora eta Jon Ibisate-Narzo Saiz eta

Eneko Gomez *Alebinak A*

Hugo Iñigo eta Julen Urruzola-Ane Sanchez eta

Itsaso Contreras *Alebinak B*Adrian Apaolaza-Aritz Sarobe *Infantilak*

Peio eta Presa-Mielxo eta Etxezarreta

*Beteranoak A*Imanol eta Juanar-Juanto eta Kiki *Beteranoak B*Agus eta Arteaga-Goio eta Arroio *Beteranoak A*

SQUASHA

Larunbata 9

HERRIKO TXAPELKETA FINALAK

Kirolegia, 16:00etatik aurrera

Raul Mateos-Asier Munduate

Kontsolazio finala

Xabier Amiano-Oswal Cañedo

3. eta 4. postua

Kinin Calvo-Iker Cañedo *Final Handia*

PALA

Asteartea 12

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua

18:30etan, Alain eta Txema-Xabi eta Mikel

19:15etan, Xabi eta Beñat-Pagola eta Jesus

20:00etan, Potzu eta Gari-Santi eta Bernaitz

Asteazkena 13

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua

18:30etan, Goiko eta Azkona-Iñigo eta Carlines

19:15etan, Begiristain anaia-Galdos eta Izeta

20:00etan, Imanol eta Ander-Jonpe eta Iker

TENISA

Osteguna 7-Igandea 10

Madrilen

Patxi Fadrique herritarrek 'IV Open

Ciudad de Rivas de tenis en silla de

ruedas' txapelketan parte hartuko du.

ATLETISMOA

Larunbata 9

Altamira, Ordizia, 16:30etan

LOKEko eta herriko atletek

Gipuzkoako aire libreko

txapelketako bigarren saioa dute.

Igandea 10

Lakuntza, 09:00etan

Herriko hainbat korrikalari

8. Lakuntza-Aralar Mendi

lasterketan izango dira.

Anoeta Miniestadioa, Donostia,

10:00etan

LOKEko eta herriko atletek

Gipuzkoako aire libreko

txapelketako bigarren saioa dute.

Ereñotzu, 10:00etan

Herriko hainbat korrikalari

Ereñotzuko Mendi lasterketan

izango dira.

Hondarribia, 11:00etan

Herriko hainbat korrikalari 6.

Hondarribia Rugby Kross proban

izango dira lasterka.

IGERIKETA

Larunbata 9

Kirolegia, 10:30etan

Buruntzaldea IKTKo igerilariek

Lasarte XXIII Sarian izango dira.

TRIATLOIA

Larunbata 9

Zarauz, 14:00etan

Herritar talde batek distantzia erdiko

Euskadiko txapelketa den Zarauzko

Triatloian parte hartuko du.

Igandea 10

Donostia, 10:00etan

Herritar talde batek Donostiako

Sprint Triatloian parte hartuko du.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 9

Bergara, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko 2. urteko kadeteek LXXVI.

San Antonio Saria - XII. Honorio

Agirregabiria oroimenezkoa proban

parte hartuko dute.

Zumaia, 16:30etan

Bazpi txirrindularitza eskolako

infantilek Zumaia sarian izango dira.

Igandea 10

Biyak Bat, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek

irteera dute Azkoitira.

Andoain, 09:30etan

Herritar talde batek On Egin BTT

proban parte hartuko du.

Anoeta, 10:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko juniorrek XXIX M.

Oiarzabal - A. Urkola

oroimenezkoan parte hartuko dute.

Iruña, 11:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko 1. urteko kadeteek

Gazteko Trofeo lasterketa dute.

INDOOR TXIRRINDA

Larunbata 9

Gasca kirolegia, Donostia,

10:00etatik aurrera

Herritar talde batek Saharatik

Euskadira kirolean izena izango

duen 1º Indoor txirrindularitza

maratoian parte hartuko dute.

LOKE JAIALDIA

Igandea 10

Michelingo pilotalekuan, 10:00etan

LOKE elkartearen 25. urteurrena

eta denboraldi amaiera dela eta,

elkarteko atal desberdinek

(gimnastika erritmikoa, atletismoa,

mahai tenisa, judoa eta tenisa)

erakustaldia egingo dute.

Agenda

Ostirala 8, Ama Brigitarren komentua, 19:30ean



Doinu ezagunak ikasleen ahotsetan

Donostiako Francisco Escudero kontsebatorioari kantu ikasleen kontzertua, Danok Kide elkarteak antolatzen dituen VII musika Topaketan barruan. Nazioarteko, zein estatuko musika egileen doinuak eskainiko dituzte, Manuel de Fallaren "Nana" eta "Asturiana", Guri-diren "El Caserio" laneko "Yo no se que veo en Ana Mari" edo Mozarten "Don Giovanni"-ren hainbat zati, esate baterako.

Erromeria

OKENDO PLAZA
Igandea 10, egun osoa

Semblante Andaluz elkarteak Rocioko Amaren erromeria antolatuko du.



Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 8

Udako txoko eta Kanpaldietako bile-rak:

17:00etan, Mendigorria LH3-LH4

17:45ean, LH3-LH6 (euskaraz)

18:15ean, Valdegovia LH5-LH6

19:00etan, LH3-LH6 (gaztelaniaz)

19:30ean, Altzo LH2-LH3

Lasarte-Oria

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 8, 23:00etan

Enekora-ren emanaldia. Honetan, kora (arpa afrikarra) eta ahotsa izango dira nagusi.



ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 8, 23:45ean

Gau rockeroa, Iam Raros eta Rolling Dice taldeen eskutik. Sarrera 5 euro.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 16, 23:45ean

Transistores 50 taldearen kontzertua. Doan.

Hitzaldia

ANTONIO BLAS PLAZAKO LOKALEAN

Ostirala 8, 19:00etan

Jakoba Errekondo agronomo eta paisajistaren hitzaldia antolatuko du Zabaleta auzolan elkarteak lagunek. Gaia loreak, landareak etab.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekainean zehar

"Garuna Lantzen Unibertsoan" marraski erakusketa ikusgai izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ekainaren 8a arte, 18:00etatik 21:00etara

Lasarte-Oriako danborradako 1947tik gaur egunera arteko argazki erakusketa ikusteko azken eguna da gaur.



Usurbil

Hitzaldia

SUTEGI KULTUR-ETXEA

Ostirala 8, 18:30ean

"Errausketari ateak ixten" dokumentalaren proiektzioa. Itaya gazte asanbaldak eta Usurbil Zero Zaborrek antolatua.

Astigarraga

Musika

J. BARANDIARAN PLAZA

Larunbata 9, egun osoa

Norberto Amadoz Musika eskolako kideek XII. Musika Eguna ospatuko dute.

Herritarren txokoa

Marraski eta pintura ikastaroa bukatzen da

Lasarte-Oriako bizilagun elkarteak jakin arazten du datorren ekainean 16an pintura eta marrazketa eskolak amaituko direla.

Sorgin dantzako entseguak

Sorgin dantzarako entseguak atzo hasi ziren. Astearte eta ostegunetan egingo dira entsegu irekiak eta haue-tan ohi bezala haur zein helduek parte hartu ahal izango dute.

Antolatzaileek azaldu moduan, eguraldi ona egitekotan, entseguak Landaberri BHI-n egingo dira eta eguraldi txarreko egunetan, Landaberri-Garaikoetxea eraikineria pasako dira saioak.

Gainera, gazteen zortzikotean egon nahi duten haurrek Manuel Lekuona kultur-etxean izena eman behar dute.

San Juan bezperako

soka-dantzarako entseguak

San Juan Suan Soka-dantzan parte hartzeko entsegu irekiak hasi dira. Astelehenero, hau da, ekainak 11 eta 18an izango dira hurrengoak.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokaletan egingo dira guztiak 20:30ean. Haue-tan nahi duten herritar guztiek har dezakete parte.

Iradokizunak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Hemeroteka

Duela 1017 ale

1994ko martxoaren 13an, Hipodromoan "Aupa euskal eskola publikoan" lemapean Euskal Eskola publikoaren III. Jaia ospatuko zelaren berri eman zuen TXINTXARRI-k.

Antolatzaileek adierazi zuten, jai honen xedea "eskola publiko-kalera atera eta bere izaera integratzailea eta solidarioa agertztea da".

Aurreko edizioetan Gipuzkoako OHOKO ikasleen guraso elkarteak bakarrik antolatu bazuten ere, oraingoan Bizkaia eta Arabako ikasketaren bertainen federazioek ere bat egin zuten ekimenarekin. Gauzak honela, Hipodromoan 60.000 pertsona baino gehiago izatea espero zuten.

Honetan, Garaikoetxea, Sasoeta, Oztaran eta Zumaburu-Kaxakarro ikasleek parte hartu zuten eta guztien arduradunak bat etorri ziren beharrezko jai zela azipimarratzen. Izan ere, eskola publikoan egiten den lana jakitera emateaz gain, sare horretan dauden ikasleak elkar ezagutzeko aukera izango zuten. Kaxakarro ikasleek arduradunek, "guraso, irakasle eta ikasleak biltzeko aukera polita dugu igandekoa" adierazi zuten.

Jaien protagonismoa haurena izatea zuen helburu ere. Horregatik ekin-tza gehienak haiei bideratuak ziren. Puztutako gaztelua, ohe elastikoak, haur-rentzako jostailuak, etab. eta haurrek prestatutako, zein bestelako milaka ikuskizun zeuden guztiek gozatzeko, hala nola, hitzaldiak eta kontzertuak.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Gorka Aristegi, Jesus Diez eta Manolo Morales LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkarteko ordezkariak

“Txapeldun bat garestia izaten da”

- LOKE, Lasarte-Oria Kirol Elkartea atek irekiko ditu 25. urteurreneko ospakizunean
- Igande goizean kirol erakustaldiak eta argazki erakusketa egingo dituzte Michelinen
- 25 urtetan klubean ibilitakoak Aginaga sagardotegian elkartuko dira bazkaltzeko

25 urte beteko ditu aurten LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkartea eta igandean, ekainaren 10ean, ikasturte amaierako erakustaldi eta ospakizuna berezia izango da. Goizeko 10:00etan hasita,aldi berean, tenis, mahai tenis, atletismo, judo eta gimnasia erritmiko erakustaldiak egingo dituzte LOKEko kirolariek Michelingo kiroldegian. Elkartearen ibilbidea biltzen duen erakusketa ere jarriko da bertan eta ondoren urte hauetan Klubarekin hartu-emanan izan dutenek eta gaur egun bertan ari direnek elkarrekin ospatuko dute urteurrena Aginaga Sagardotegian bazkaltzeko.

Jon ALTUNA IZA

O fizialki, LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkartea 1987ko abenduaren 5ean sortu zen, futbol elkarte bezala, baina bizpahiru urte ondoren utzi egin zuten eta 1995ean, Michelingo kirol eta kultur elkarte desegin zenean, hartu zuten oraingo zuzendaritzakoek. Michelinek kirol instalakuntzak Udalaren esku utzi eta elkarte desageritzean, bertan zeramaten martxari eusteko eta kirolariek babesik gabe ez uzteko Lasarte-Oria izenarekin Kirol Elkartea sortzea erabaki zuten.

Jaurlaritzari estatutuak bidali eta eskaera egitean konturatu ziren, klub hori bazela Lasarte-Orian. “Klubaren azken zuzendaritzako kideekin elkartu, batzar orokorra egin eta estatutuak eguneratu genituen. Futbol talde bat izatetik, nagusiki atletismoa eta beste zortzi kirol sail izatera pasa zen eta hauek ari ziren monitoreak ere klub berrira joan ziren”. Orain tenis, mahai tenis, atletismo, judo eta gimnasia erritmikoa atalek jarraitzen dute, padel saila sortzekoak dira eta igeriketak, saskibaloiak, futbolak edo txirrindularitzak pisua galdu dute.

25 urte hauetan zein izan da unerik pozgarriena?

Momentu gorena 2007-2008an izan genuen, 13. aldiz antolatua izan genuen nazioarteko Mahai Tenis Torneoa, eta 5. aldiz, Hiri-Milia lasterketa. Kirolari onak etortzen ziren.

Dena den, klubean oinarritzko kirolean aritzeko aukera ematea da.

Zenbat lagun zabiltzate zuzendaritzan?

Lehendakaria, ordea, diruzaina, kalitatearen arduraduna eta atal bakoitzeko arduradun bat, zortzi lagun musu truk lanean. Gainera, atal bakoitza auto finantzatzen da. Hori da gure ustez, klubak duen gauza onenarikoa. Ez dugu dirurik, baina ez dugu zorrik ere. Zuzendaritza saiatuko da babesleak bilatzen, baina, sosak denen artean banatzeko.

Zenbat kirolari dira Klubean?

Urte hauetan, gutxi gorabehera, guztira 25.000 kirolari aritu dira LOKE inguruan. Bazkideak bataz beste 300 bat ditugu, gehienez 600 bat izan ziren. Urtero 400 kirolarirekin gabiltza lanean, askoz gehiago ere ezin ditugu hartu daukagun monitore eta instalakuntza kopuruarekin.



Udalarekin zer moduzko hartu-emanak daukazue?

Ez dauka dirurik, eta ez dakigu laguntzarik ere izango dugun, ezetzik ez dute esaten baina ikasturtea laguntzarik gabe hasi genuen. Bestalde, ez gaude kiroldegian eta kirolaren kudeaketarekin ados. Horretan, meritu bat badaukate, herri osoa aurka egotea lortu dute.

Hori bai, 25 urteurreneko ekitaldietarako oso ondo portatu da Udala, dirurik ez du eman baina ez digute instalakuntzak erabiltzeko eragozpenik jarri.

Igandean hilaren 10ean egingo da festa?

Bai urtero egiten ditugu urte bukaeran ikasleen erakustaldiak eta bazkaria. Aurten, 25. urteurrena betetzen dugunez, ezer ikusgarria egin gabe,

buelta bat eman nahi genion, eta kirol denak elkarrekin erakutsi, kirolaren atek ireki eta herritarrei kirolak ikusteko eta probatzeko aukera eskaini, tenis pistetan eta ping-pong-eko mahaietan esaterako. Kiroldegian posible ez denez, Michelinen egingo dugu. Aldi berean, arituko dira, esaterako, judokak eta gimnastak. Herriko atletak ikusteko aukerarik ez da izango, atletismo denboraldia pil pilean dagoelako eta txapelketak jokatzeko ari direlako, baina bazkarian denak elkartuko gara gero Aginagan.

Elkarteko atal guztien aurkezpena egingo da hasteko Michelinen, izan diren kirol guztien errepaso, herritarrek LOKEren bolumena ikus dezaten. Gainera goizean zehar,

LOKEren historia laburtzen duen erakusketa bat egongo da Michelinen bertan ikusgai, horretarako hainbat argazki, prentsa erreportaje, artikulu eta aipamen prestatu ditugu.

Bost sail dituzte eta oro har erantzun ona guztietan?

Bai, baina txapeldunak izateak dirua eskatzen du. Txapeldunak ibili egin behar dira, eta bidaia ordaindu behar zaizkie. Michelinen geundenean horretan ez zegoen arazorik, gustura ordaintzen zituzten bidaia, Michelinen izena zabaldu egiten zelako eta emaitzek ere prestigioa ematen zituelako.

Gainera etorkizun oparoa duten kirolari gazte on asko ditugu herrian.

Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean



ikasi euskara
eman izena aek-n
www.aek.org

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzula

munterri
euskaltzagia aek

- Euskara agiriak
- EGA
- Hizkuntza perfilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, beheka • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863 lasarte@aek.org
www.munterri.blogspot.com.es